

# LOURDES DE LA VILLA

2014.04.15 - 2014.05.18

## HURRENGO ERAKUSKETAK

barriek 2014. BFAREN Sorkuntza Artistikorako Bekak.

MIKELDI PÉREZ maiatzaren 20tik uztailaren 6ra

IKER SERRANO uztailaren 8tik abuztuaren 31ra

ALVARO GIL irailaren 2tik urriaren 12ra

### rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao  
Tel. +34 94 406 85 32  
www.salarekalde.bizkaia.net

### Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30  
Igande eta jai egunetan: 10 - 14  
Astelehenetan itxita

### Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h  
Domingos y festivos: 10 - 14 h  
Lunes cerrado

### Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h  
Sundays and holidays: 10 - 14 h  
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



rekalde



Euskera

# LOURDES DE LA VILLA

## Sueño del observador


2014ko apirilaren 15etik maiatzaren 18ra

- Rekalde Aretoak Lourdes de la Villaren (Burgos, 1970) erakusketa aurkezten du Kabinete Abstraktuan. Erakusketa **barriek 2014** programaren barruan sartuta dago, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiaren sorkuntza artistikorako bekak jasotzen dituzten artisten aukeraketa bat erakusteko antolatzen den programan.
- Artista Bilbon bizi da, bertan lan egiten du, eta bertan ikasi zituen Arte Ederak, Euskal Herriko Unibertsitatean UPV/EHU. *Sueño del observador* (Behatzailearen ametsa) izenburupean, hainbat lan jarri ditu ikusgai Rekalde Aretoan, BilbaoArte Fundazioaren artista-trukearen bidez 2010. urtean Austriako Bregenz hirian izan zenean sortuak denak.
- Bregenz hirian hartutako argazki hauen bidez, Lourdes de la Villak atmosfera mentala sortu du, bere esperientziaren material psikologikoa balitz bezala, ikusmen-forma zehatza bilatzeko laguntza gisa. Emaitzak ez du autobiografikoa izan nahi; erantzuna eman nahi dio memoria eratzeko prozesuari.
- Artistak ahalegina egiten du behatzaileak ikusten duena irudikatzen, irudia modu digitalean manipulatu. Zirriborroak (fotomuntaketak) utzi, eta estanpatzeko edo "serigrafiatzeko" moduko irudi bilakatzen ditu, baina margolaritzari dagozkion urratsei, euskarriari eta materiari eusten die une oro. Mihisea bereganatu, eta bere pintura fabrikatzen du, pantaila serigrafikoan erabiltzeko behar bezala egokituta.

rekalde Alda. Recalde, 30 - 48009 Bilbao - Tfno. +34 94 4068532 - www.salarekalde.bizkaia.net

## ERAKUSKETA

Bregenz hiria da *Sueño del observador* ideia gauzatzeko aukera eman zidan agertokia. Austriako hiri horretan bizi nintzen 2010. urteko irail-urrian. Gehienbat, argazkiekin egin dut lan, Bilbora itzuli aurretik han atera nituen argazkiekin. Bi hilabete horietan korritu nituen tokietara joan nintzen, eta urrutitik ikusitako beste leku askotara ere bai. Material horrekin, zirriborroak landu nituen hurrengo hilabeteetan, eta azkenean ideiarekin azken forma gauzatzea lortu nuen. Bost irudi dira, eta, denek batera, une jakin batean eta herri zehatz batean izandako atmosfera mentala birsortzen dute. Bizitzaren fluxutik ateratako atmosfera hori nire bizitzaren material psikologikoa da, eta ikus forma berezi bat bilatzeko erabiltzen dut. Emaitzak ez du autobiografikoa izan nahi; hasierako helburuari eman nahi dio erantzuna, oroimena nola eraikitzen den lantzen duten arazo orokorrak aztertu nahi ditu. Nolabait esan daiteke neure emozioak erabiltzen ditudala, aktore batek bere pertsonaia eraikitzeko egiten duen moduan.



Proiektu honetan nire mintzaira kokatzen den ingurune piktorikoan ideia garatu ahal izateko, marra saihesteko beharra izan da eskakizun teknikorik garrantzitsuena. Behatzaileak ikusten duena irudikatu nahi nuen, nola edo hala, denok baikara hori. Eta entitate horrek ez du eskurik marra eta pintzela erabiltzeko. Irudi piktorikoa sortzeko

moduan bereizketa teknikoa egin ahal izateko, irudia era digitalean manipulatu dut, zirriborroak (fotomuntaketak) estanpatzeko moduko irudi bihurtzeko. Irudia serigrafiatuz, alde batera utzi ahal izan ditut marrakia eta pintzelada; izan ere, "ahokatuta" dagoen irudia "margotuta" dago. Alabaina, ingurune piktorikoari dagozkion euskarria, materia eta urratsak jarraitu ditut, biak lantzean. Esate baterako, mihisea prestatu dut, eta neure pintura fabrikatu dut, pantaila serigrafikoan erabiltzeko egokituta; eta pintura hori erabili dut orban isuri moduko formak eginez.

Zirriborro bakoitzak pieza bat sortu du mihisearen gainean, eta, horrekin batera, bertsio bat landu dut paper gainean. Era horretan, serigrafiaren erabileraren emaitza aztertu nahi izan dut, irudi piktorikoarekin batera



haren bertsio fotografiko hutsa ere sortzeko. Erkaketa hori eginez, datu batzuk nabarmendu nahi izan ditut bereziki, bestela ere aintzaketat hartuko ez liratekeenak. Datu horiek lagungarriak dira, ingurune bizipenaren bidez gizakiaren baitan oroimena eratzeko moduz hausnarketa egiteko.

Kasu honetan, irudi baten inguruan egin dudana erakusten dut, eta beste irudi baten paperezko bertsioa ere jarri dut ikusgai.

## ARTISTA

**Lourdes de la Villa** (Burgos, 1970) Arte Ederretan lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatetik (UPV/EHU, 2000). 2011. urtean, doktoregoa ere eskuratu zuen unibertsitate horretan, eta 2001ean Euskal Herriko Arte Garaikideko Espezializazioko Diploma lortu zuen Deustuko Unibertsitatean. Ikastaro, mintegi eta tailer askotan hartu du parte, besteak beste, honetan: *Serigrafia hedatua: paperetik esku-hartze serigrafikora* (BilbaoArte, 2011).

2012. urtean Bizkaiko Foru Aldundiaren Ikusmen Arteen beka jaso zuen, eta 2010ean BilbaoArte (Bilbo) eta Bregenzeko Kunsthaus zentroko (Austria) artista egoiliarra izan zen. 2003. eta 2007. urteen artean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren doktoratu aurreko beka eskuratu zuen.

Azken urteetan, talde-erakusketa askotan hartu du parte: *Edición múltiple* (Bizkaia Aretoa Paraninfo, Bilbo, 2011), *Artist exchange Bilbao-Voralberg* (Stephanie Hollenstein galeria, Lustenau, Austria, 2010), *Egoileak 2010 residentes* (BilbaoArte, 2010), *Paisajismos. Land\_scapes* (Espacio Abisal, Bilbo, 2007), *Euskal Herriko bideen, kanalen eta portuen Ingeniaritza Eskolako Arte Plastikoen V. Lehiaketa* (Bilbo, 2007), *Le cloître 2005. Mémoire des lieux* (Baionako Katedraleko klaustroa, 2005), *IV Biennale art contemporain de Navarre* (Donibane Garazi, 2005). Banakako erakusketa hau ere jarri du: *Secuencia imaginada* (BilbaoArte, Bilbo, 2011).

2014. urtean, hiru hilabete (urtarriletik apirilera) eman ditu Mexiko Barruti Federalean, hain zuzen, Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko Arte Plastikoen Eskola Nazionalean, Fernando Zamora Águilak zuzendutako CIPEI - Centro de Investigación-Producción y Estudios de la Imagen zentroko iker-tzaile gonbidatu gisa.